

Maiatzaren 5ean
3. PAZKO IGANDEA

Agurra

Heriotzaren lokarriak etenik Jesu Kristo berpiztu duen Jainko bizi-emailea izan bedi zuekin.

Sarrerako oharpena

Kristo Piztua gure artean dago egiaz. Ezagutu dezagun batzarraren erdian; entzungo dugun Hitz ederrean; elkarbanatuko dugun Ogi bizian. Eta eraman dezagun gero gurekin, goazen toki guztietan Kristoren bizia izan dadinugar eta bultzagarri.

Bataio-urez zirtatzea

Senideok: Eukaristia ospatzera goaz; Bataiokoan bat egin genuen era berezian Kristo Piztuarekin eta berak bildu gaitu gaur bere mahaian. Geure Bataioa oroitzuz bat egin dezagun Jainkoarekin.

Herria zirtatuko du apaizak elizan barrena ibiliz.

Bitartean kantu egokiren bat: ikus liburuxka honen 64. orrialdean.

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.

R/. Amen.

Erruki, Jauna. R/. Erruki, Jauna.

Kristo, erruki. R/. Kristo, erruki.

Erruki, Jauna. R/. Erruki, Jauna.

Aintza zeruetan

Kanta dezagun aintzazko gorazarrea, gure alde otoitz egiteko Aitaren eskuin aldean dagoen Jesu Kristo Jaunari dei eginez.

Otoitza

**Poztu dadila beti, Jauna,
biziberritu eta gaztetu duzun zeure herria;
iguzu, zure seme-alaba-ordekotza berriturik pozez gaudenok,
uste sendoenaz itxaron dezagula piztuera eguna.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

Hitzaren liturgiari oharpena

Apostoluen inguruan sortutako elkartearen testigantza, aberasgarri dugu gaur senide elkartasunean bizitzeko. Jesus fedez onartzeak, egiazko bizia ematen digu.

Lehenengo irakurgaia (Eg 5, 27b-32. 40b-41)

Apostoluen Eginetatik

Egun haietan, Apaiz nagusiak galdetu zien apostoluei: «Ez al genizuen zorrotz agindu, Horren izenean ez erakusteko? Zuek, berriz, Jerusalem osoa bete duzue zuen erakutsiz, eta Gizon horren odolaren erantzukizuna guri ezarri nahi diguzue».

Pedrok eta apostoluek erantzun zuten: «Jaungoikoaren esana egin behar da aurrena; ez gizakiena. Gure arbasoen Jaungoikoak biztu egin zuen, zuek habetik zintzilik hil zenuten Jesus.

Jaungoikoak goratu egin du bere eskuinez, eta Buruzagi eta Salbatzaile egin, Israeli bihotz-berritzea eta bekatuen barkamena emateko. Gu gara gauza hauen testigu, baita Jaungoikoak bere esana egiten dutenei ematen dien Espiritu Santua ere».

Jesusen izenean hitzegitea galerazi zieten eta joaten utzi. Apostoluak pozez atera ziren Batzarretik, Jesusen izenarengatik irainak jasateko gai aurkitu zituztelako.

Erantzun-salmoa (Sal 29, 2 eta 4. 5-6. 11-12a eta 13b)

Es-ke- rrak Jau-na - ri, Ha- ren mai-ta-su - na be - ti-ko-a bai- ta.

Goretsiko zaitut, Jauna, onik atera nauzulako,
etsaiak nitaz pozten utzi ez dituzulako.
Jauna, Leizetik nire bizia atera duzu,
zulora doazenengandik bizirik gorde nauzu. R/.

Eresi egiozue, zintzoek, Jaunari, '
eman eskerrak Haren izen santuari.
Une baterako da Haren haserrea, '
bizi guztirako Haren on izatea.
Negarra dator arratsaldean,
baina poza goizean. R/.

Entzun niri eta nitaz erruki, Jauna,
izan zakizkit laguntzaile, Jauna.
Negarra, dantza bihurtu didazu,
Jauna, ene Jainko, eskerrak nik Zuri beti. R/.


Bigarren irakurgaia (Apk 5, 11-14)

Apokalipsi liburutik

Nik, Joanek, begiratu nuen eta aingeru askoren mintzoa aditu nuen;
milaka eta milioika ziren, aulkiaren eta bizidunen eta zaharren

inguruan; eta hots handiz honela zioten: «Indarra eta aberastasuna, jakinduria eta ahalmena, ospea, aintza eta gorespina hartzeko bada nor hila izan den Bildotsa». Eta zeruko eta lur gaineko, lurpeko eta itsasoko, eta haietan diren izaki guztiei hau aditu nien: «Errege aulkian dagoenari eta Bildotsari, gorespina, ospea, aintza eta agintea gizaldi eta gizaldietan». Eta lau bizidunek erantzun zuten: «Amen». Eta zaharrek, ahuspezturik, gurtu zuten, gizaldi eta gizaldietan bizi dena.

Aleluia



Piztu da Kristo, gauza guztiak egin zituena,
eta gizadiaz erruki izan duena. R/.

Ebanjelioa (Jn 21, 1-19)

Homiliarako argibideak

Zaindu nire artaldea

Elizan, errukiaz kezkatu beharrean beste gauza batzuekin kezkatuta egon gara sarritan: doktrinarekin, betetzearekin eta arauekin batez ere. Funtsezkoa itzultzeko eskatzen du Frantzisko Aita Santuak, **Ebanjelioaren muinera**, alegia.

Jesusek bere konfiantzako pertsona baten esku utzi nahi izan zuen bere Eliza, bere ardiak eta arkumean ongi zainduko zituen pertsona baten esku, alegia. Probatzeko, ez dio galdetzen bere esku jarriko duen Eliza hori maite duen. Jesusek badaki **artaldearen Jauna** maite

badu bakarrik maiteko duela artaldea. Horregatik, hiru aldiz egingo dio galdera bera, zuzen-zuzen: **maite al nauzu?** Jauna maite ez bada, zaila da horren Eliza maitatzea. Jauna maite dutela esango dute askok; ez, ordea, gure Eliza. Jesusek, berriz, maite du bere Eliza, eta horren alde eman du bere burua, arazteko eta zimurrik edota orbanik gabe aurkeztu ahal izateko.

Behin betiko azterketa da, noski (*Jn* 21,1-19). “Arratsean, maitasunaz galdetuko dizute” (San Joan Gurutzekoa). Oso erraza zen azterketa, “bai” edo “ez” erantzun behar zen, besterik ez. Galdera zaila zen, ordea: “Maiteago al nauzu hauek baino?”. Bete-betean jo zuen galderarekin. **Hitzak baino gehiago, ekintzak** dira maitasuna. Besteei ezer txarrik ez egitea da kontua, noski, baina ongi eginez adierazten da maitasuna. Eta maitasuna zehatza da, pertsona zehatzari eragiten dio.

Pedro ez da ausartzen bere burua besteekin alderatzen, eta Jesusek badakiela Pedrok maite duela esango du, besterik gabe. Jesusek ados dirudi, eta bere artaldea uzten dio. Bat-batean, ordea, berriz egingo dio Jesusek galdera, konparaziorik egin gabe, oraingoan. Gauza bera esango du Pedrok, eta Jesusek bere Eliza utziko dio. Baina Jesusek hirugarren aldiz galdetzen dionean, Pedro konturatuko da min handien egiten duen aldetik hartu duela Jesusek argudio. Jesusenganako bere maitasuna ez da gai izan bere **hiru ukatzeak** gainditzeko. Jauna kontu hartzen ari zaiola dirudi. Pedrok gauza bera erantzungo du, baina, eta Jaunak bere Eliza utziko dio.

Gutxi geratzen da lehengo Pedro oldarkor eta harroputz hartatik. Nekez ikasi du lezioa. Etorkizunerako prestatuko du horrek, jarraipenean leialago izateko. Zaharra izango da egun batean, eta martiriora eramango dute, maisuarekiko maitasunaren froga gisa. Orain esango du Jesusek dei egiten duen esaten duen hitza: “Jarraitu niri”. Pedro prest dago bigarren deirako eta Jesusi

—Kristok, heriotza desegin duenak eta gaixotasun oroaren sendagile denak, ahulez eta zorigaitzekoez erruki izan dezan eta mundutik gosea, gerra eta gaitz oro urruntzen lagun diezagun. Egigun otoitz. R/.

—Kristok, Jaunak, gure elkarte bedeinka dezan eta Bere garaipena ospatzera gaur bildu garenoi bakea, alaitasuna eta atsedena eman diezagun. Egigun otoitz. R/.

Jainko Jauna, gure bekatuengatik eskainia izan zen Zure Semearen garaipenean jarri duzu adiskidetzearen eta bakearen oinarria; entzun Zure Elizaren otoitzak, eta egin gaitzazu Zure maitasunean baketutako gizadi berriaren ezaugarri eta legami. Zure Seme Jesu Kristoren bitartez, errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Mezako otoitz nagusira goaz: esker ona eta gorapena dario. Kristo berak Ogia zatituko du guretzat. Kristo bera emango zaigu janari.

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Begira, Jauna,
sakramentuen bidez berriztatu duzun zure herriari;
eta, bizitza hilezkorrerako egin gaituzunez gero,
emaguzu piztuerara iristea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bedeinkapen nagusia

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetze, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Bere Semearen piztueraz salbatu
eta bere seme-alaba egin zaituzten Jainkoak
poztu zaitzatela bere bedeinkapenez. R/. Amen.**

**Bere erospenaz
egiazko askatasuna lortu dizuen Kristok
eman diezazuela betiko oinordekotza. R/. Amen.**

**Zuen sinesmena aitortuz,
Bataioan Kristorekin piztu zaretenok,
orain zintzo bizi izanez,
lor dezazuela zeruan Harekin bat egitea. R/. Amen.**

**Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**

**Zoazte Jaunaren bakean.
R/. Eskerrak Jainkoari.**